OSTIRALA
txintxarri
740. zk.
2008-II-28
LASARTE-ORIA
www.txintxarri.info

# Emakumeen egoera aztergai

▌Nikaraguako emakume indigenen egoerari buruzko hitzaldia egon zen kultur etxean astelehenean
▌Emakumearen aurkako indarkeriari buruzkoa hitzaldia asteartean izan zen Zentro Zibikoan


Maria Hazel Lau Blancok Nikaraguako emakume indigenen egoerari buruz hitz egin zuen kultur etxean astelehenean.

Astea hasieran emakumearen egoera aztertu zituzten bi hitzaldi eskaini ziren Lasarte-Orian, batetik Maria Hazel Lau Blancok *Emakume indigenak gaur egungo Nikaraguan* eta, bestetik, Teresa Mollák *Emakumearen aurkako indarkeria*ri buruzkoa.

### Emakume indigenak

*Emakume indigenak gaur egungo Nikaraguan* hitzaldia kultur etxean burutu zen astelehenean.

*Mundu bat* elkarteak eta *Komite internazionalistek* antolatutako hitzaldi honetan Maria Hazel Lau Blancok, *Mexikoko eta Erdialdeko Amerikako Emakume Indigenen Sare*ko ordezkariak, gaur egun emakumeek Nikaraguan dituzten arazoak jorratu zituen, hala nola, arazo ekonomikoak edo indarkeriaren arazoa.

### Genero-indarkeria

Bestalde, asteartean, genero-indarkeriaren aurkako egunean, Emakumeen Zentro Zibikoak hitzaldia antolatu zuen gaia jorratzeko. Horretarako, genero-indarkeriaren aurkako legearen aurreproiektuan lan egin zuen Teresa Mollá Ontenyenteko zinegotzi-ohia gonbidatu zuten.

Mollá andereak datu historikoak eta estatistikoak eskaini zituen, baina ez zen hauetan asko luzatu. Emakumeak jasaten dituen indarkeria mota desberdinak aipatu eta azaldu zituen, adibideak eman eta bukaeran solasaldia izan zuen zentrora gerturatu ziren emakumeekin.

### Gai jorratuak

TXINTXARRIko hurrengo zenbakian Maria Hazel Lau Blancoren elkarrizketa eta Teresa Molláren hitzaldia argitaratuko ditugu. •


Asteartean, genero-indarkeriaren aurkako egunean, Teresa Molláren hitzaldia entzun ahal izan zen Zentro Zibikoan.




Harategietan euskara bultzatzeko kanpaina abian Buruntzaldean /4

MUSIKA ▌3

**Danok Kide elkarteak antolatutako IV. Topaketa Musikalak gaur hasiko dira**



Aldatz Hortz Klinika futbol taldeak Euskal Ligako lidergoa eskuratu du /6


UGARI
Supermerkatua
Igande eta jai egunetan ere goizez irekita!
Ola kalea 6 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 36 21 60

## Zorion-agurrak



**Nahia**
Zorionak eta 11 muxu handi. Familia eta lagunen partetik.



**Mikel**
Zorionak Mikel!! Sei muxu potolo familiaren partetik



**Aimar**
Kaixo potxoko! Bi muxu handi zure urtebetetze egunagatik zure familiaren partez.



**Naia**
Zorionak zure 2. urtebetetzean. Gurasoen, aitonamonen, lehengusu eta izeba-osaben partetik.



**Iker**
Sei muxu etxeko bihurriarentzat familiaren partetik



**Noelia**
Zorionak! Munduko amatxorik onena zara! Pedro eta Unairen partetik



**Eneko**
Zorionak bihurri! Zure familia eta Hodeien partetik.

## Azoka txikia

### Eskaintza immobiliarioak

• Iñigo de Loiolan garaje itxi bat alokatzen da.
Tel.: 659 215092

### Salerosketak

• Urbarten garageko marra bat alokatzen det.
Tel.: 943.363524

• Haur denda bateko bustoak eta altzairuak saltzen ditut.
Tel: 943 314312

• Salgai txakurkume ederrak. Artzaintza lanerako edo konpainiarako. Moduzko prezioan.
Tel.: 652 71 95 24.

• Hamar urteko neska batentzako, bizikleta bat erosi nuke.
Tel.: 943-366359 Maite

### Lan-eskariak

• Neska arduratsu bat eskaintzen da lanerako. Helduak zaintzeko edo/eta garbiketa lanetarako; interna moduan edo bakarrik egunean zehar.
Tel.: 638 308 921.

• Neska arduratsu bat eskaintzen da lanerako. Helduak zaintzeko edo/eta garbiketa lanetarako; interna moduan edo bakarrik egunean zehar.
Tel.: 620 036 888.

**Oharretarako:**
943 366858 • txintxarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

## Jaiotzak

Iker Otero Sanchez, azaroaren 22an
Manex Azkonobieta Illarramendi, azaroaren 19an
Adriana Grcía Viturro, azaroaren 18an
Daniel Jimenez Jimenez, azaroaren 17an
Erik Martinez Portas, azaroaren 15an
Alaitz Eceiza Iraola, azaroaren 15ean
Ane Baltasar García, azaroaren 11an

## Heriotzak

Ruth Sanchez Lasa, azaroaren 22an 35 urte zituela

## Guardiak

**Ostirala, 28**
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151
**Larunbata, 29**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
**Igandea, 30**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
**Astelehena, 1**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
**Asteartea, 2**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
**Asteazkena, 3**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
**Osteguna, 4**
Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

## Telefonoak

### Osasuna / Larrialdiak

| | |
|---|---|
| Osasun Zentroa | 943 007960 |
| DYA | 943 370000 |
| Gurutze Gorria | 943 363953 |
| Udaltzainak | 943 362442 |
| Ertzaintza | 943 288888 |
| SOS Deiak | 112 |

### Udala

| | |
|---|---|
| Erregistroa | 943 376055 |
| Euskarako Zerbitzua | 943 376184 |
| Kiroldegia | 943376182 |
| Kulturetxea | 943376181 |
| Bakezko epaitegia | 943371629 |
| Zerbitzu Sozialak | 943376179 |
| Zentro Zibikoa | 943363958 |
| KIUB | 943361605 |
| Udal euskaltegia | 943361621 |
| Obrak eta zerbitzuak | 943 376180 |

## Gazte Informazioarako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

www.gipuzkoangazte.info

**Gazte-Informazioko bulego-zerbitzua kontratatzeko deialdia Lasarte-Oriako Udalean**
Lasarte-Oriako udalak deituta, Lasarte-Oriako Gazte Informazioko Bulego-zerbitzua kontratatzeko lehiaketa; Urte baterako, gehienez 3 urte luzatzeko aukerarekin. Horretarako azken eguna abenduaren 2a da. Informazio gehiagorako Lasarte-Oriako udalera jo, Nagusia 22; tel.: 943 37 60 55; faxa: 943 37 26 59; web orria: www.lasarte-oria.org; e-maila: udala @lasarte-oria.org

**Kiroldegiko mantentze lanetarako 2 lanpostu Zarauzko Kirol Patronaturako**
Zarautzko Udalak deituta, lehiaketa-oposizio bidez, Kiroldegiko mantentze lanetarako bi lanpostu betetzea Zarautzko Kirol Patronaturako. Horretarako azkeneko eguna abenduaren 11a da. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Zarautzko Udalera, Zigordia 12, Zarautz. Tel.: 943 00 51 00; faxa: 943 00 52 00; web orria: www.zarautz.org.

**Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien lan-poltsa Donostiako Udalerako**
Donostiako Udalak deituta, Donostiako Udalean aldi baterako zerbitzuak emateko, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien lan-poltsa bat sortzeko aukeraketa-prozesuak. Bete beharrekoak: Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria eta 3. eta 4. hizkuntz eskakizuna izatea. Horretarako azken eguna abenduaren 4a. Informazio gehiagorako jo Donostiako Udalera, Ijentea, 1; tel.: 943 48 10 00; faxa: 943 42 67 81; web orria: http://www.donostia.org/info/OfertadeEmpleo.nsf/wListado-Eus/70457AA8CEE1A799C125750600337F8B?OpenDocument&idioma=Eus.

**Administrazio bereziko Liburutegiko teknikari laguntzailea oñatiko udalerako**
Oñatiko Udalean administrazio bereziko liburutegiko teknikari laguntzaile lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Bete beharrekoak: Batxiler titulua edo LH II edo baliokidea eta 3. hizkuntz eskakizuna izatea. Horretarako epea: 20 lanegun BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Informazio gehiagorako jo Oñatiko Udalera, Foruen Enparantza, 1; tel.: 943 78 04 11; web orria: https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/11/18/e0812737.htm.

**Kazetari bat Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseiluan**
Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseiluan Kazetariaren lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Bete beharrekoak: honako lizentziaturen bat edo titulu baliokidea izatea: Kazetaritza, Ikusentzunezko Komunikazioa, Publizitatea eta Gizarte Harremanak. Horretarako azken eguna abenduaren 22a. Informazio gehiago: Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseilua, Arrieta, 8 - 7. solairua, Iruñea; tel.: 948 42 19 69; 948 42 19 70; web orria: http://www.bon.es eta http://www.consejoaudiovisualdenavarra.es; e-maila: info@consejoaudiovisualdenavarra.es.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**

Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

**Argitaratzailea:** Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • **Legezko gordailua:** SS513/93 • **ISSN:** 1134-0053 • **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A.
**Aleak zenbakiko:** 7.300 • **Erredakzioa:** txintxarri@ttakun.com • **Publizitatea:** publizitatea@ttakun.com • **Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.
**Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.**

# Bitxiak egiteko ikastaroa

## Material desberdinak eta eskura errazak erabiliko dira bitxiak egiteko

TXINTXARRI

**Gabonak gainean ditugu, baita ditxosozko krisia ere, horregatik Ttakun kultur elkarteak bitxiak egiteko ikastaroa antolatu du. Aukera bikaina da estilo propioa duten edo pertsonalizatutako opariak egiteko.**



Pili Bermejok eta Ainhoa Elizegik ikastaroan egingo diren bitxiak erakutsi dizkigute.

Material desberdinak eta eskura errazak, hau da, oihalak, bolatxoak, alanbreak, etab. erabiliaz bitxiak, koilareak, brotxeak, belarritakoak eta gantxoak, egiten ikasteko aukera paregabea egongo da Ttakun Kultur Elkarteak antolatu duen ikastaro berrian,

Irakaslea Ainhoa Elizegi izango da. Euskararen 7. Maratoiko artisau azokan ikusi ahal izan genuen bere lana eta aurrerantzean ere ikusgai izango dugu, abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean esate baterako.

### Ikastaroa

Ordu eta erdiko lau saioz osatua dago ikastaroa, guztira 6 ordu. "Hauetako hiru saiotan irakasleak emandako pausoak jarraituz bitxi desberdinak egingo dituzte. Laugarrenean, berriz, bakoitzak nahi duen bitxia osatuko du, Ainhoaren laguntzaz noski," azaldu digu Pili Bermejo Ttakuneko aisiako arduradunak.

Ikastaroa Ttakuneko lokal zaharrean, Erribera kaleko 1 zenbakian egingo da.

### Izen ematea

Bi talde osatuko dira eta egunak eta ordutegia honako hauek dira, bata abenduko 9 eta 16 astearteetan 18:30etatik 20:00etara eta 13 eta 20 larunbatetan 10:00etatik 11:30etara eta bestea, aldiz, abenduak 12 eta 19 ostirala 17:30etatik 19:00etara eta 13 eta 20 larunbatak 11:30etatik 13:00etara.

"Gehienez 10 lagunek osatuko dute talde bakoitza," azaldu digu Pilik, "era honetara irakasleak kalitatezko hezkuntza eta jarraipena egin ahalko du."

Matrikula prezioa 35 eurotakoa da eta, aisiako arduradunak aipatu duenez, prezioaren barne materiala dago.

Izena emateko Ttakuneko bulegotik pasa edo 943 371 448 telefono zenbakira deituz egin dezakete interesatuek. Epea abenduaren 5ra arte egongo da irekia. •

*AHT*

## SOS Buruntza, Txikizioa gelditu

AHTren aurkako Asanbladak igorri digun oharrean bihar Lasarte-Oriatik Buruntzako gailurrera egingo den mendi martxara dei egiten du. Martxa 10:00etan aterako da Okendo plazatik eta bidean Hernani, Urnieta eta Andoaineko martxekin bat egingo da

Helburua lurrari erasotzen dioten politika suntsitzaileen aurka, AHTa eta erraustegia bezalako egitasmo anti-ekologiko eta anti-sozialak salatzea da.

Izan ere, asanbladak azaltzen duen bezala, "Buruntza ez da erasotua den gune bakarra, hor ditugu: Urumeako ibai bazterrak, Gaintxurizketa, Jaizkibel, AHTak zeharkatu nahi dituen eremuak, etab. Garapenak amalurrareriko dituen ondorio bortitzen islada Buruntzan ikusi dezakegu."

Eta zera atxikitzen dute, "uste dugu, behar-beharrezkoa dela azpiegitura erraldoi hauen inguruan, gizartean gogoeta kritikoa hedatzea eta lurraren aldeko borrokan jardutea, gure bizilekua baita."

Baina mendi martxa ez da ekintza bakarra izango. Mendi martxaren ostean, Andoaineko gaztetxean bazkaria antolatu da eta 17:30etan Zumeta plazatik irtenda manifestazioa. Honela, Asanbladak ekintza ezberdinetan parte hartzera animatzen du. •

**Solidaritatea**

## Boliviako haurren aldeko ekimena Okendo plazan

Bihar, Ostarte Gazte Taldeak Boliviako haurren aldeko ekintza solidarioa egingo du. Goiz eta arratsaldez jolas eta sentsibilizazioan oinarritutako proposamena dakar gazte taldeak.

"Haurrek jolasak eta tailerrak egiteko aukera izango dute eta, era berean, jolasteko jausgailua erosteko diru bilketa egingo da. Hau guztia, eguraldiak laguntzen badu, noski. Eguraldi kaxkarra eginez gero, bertan behera geratuko litzateke ekintza," azaldu digu Ainara Elizetxea Ostarteko kideak.

Jolasteko jausgailuaren ekimena, Boliviako El Altoko herrian burutzen diren gizarte, giza eta osasun sustapenerako egitasmoen barruan koka daiteke eta zehazki Utasa zentroko haurrei zuzendutakoa da, jostailu.

Ainarak azaldu digunez, "kalkuluen arabera, 150 euro bildu behar dira jausgailua erosteko. Horregatik, itsulapikoa jarriko da dirua biltzeko eta lasarteoriarrek bere eskuzabaltasuna erakutsi dezaten."



Goizean 11:00etatik 13:00etara Okendoko frontoian taldeko jokoak, hala nola, jolasteko jausgailuak, musika kutxa, etab. Egingo dira, baita txapa tailerra ere. Ostarteko kideez gain, Makulu taldeko bidezko merkataritza postua ere.

Arratsaldean, berriz, Okendo plazan egongo dira 16:00etatik 19:00etara eta Boliviako haurrak jolasten diren jokoetan, besteren artean, txapa lehiaketa edo tiragomarekin potoak botatzea, trebatzeko aukera izango dute. •

**Danok Kide**

## IV. Topaketa Musikalak gaur hasten dira

Danok Kide Esperientzia eskolak 2008-2009 ikasturtea publikoari irekitako gizarte eta kultura ekintzak egiten ditu urtero eta Brigitarren komentuan egiten diren Topaketa musikalak dira lasarteoriarren artean abegi handien sortzen dutena.

Aurtengoa 4. urtea da, musika ardatz izanik, aurrekoetan instrumentu zein ahots doinuak entzun ahal izan dira.

Kurtso berriari hasiera emateko, gaur arratsaldeko 19:30etan ezohizkoa den bikote instrumentala dugu, flauta eta gitarra.

Bruno Claverie flautista eta Eduardo Baranzano gitarra joleak instrumentu bikote honetarako berezi idatzitako obrak eskainiko dituzte, hala nola, Bela Bartoken *Errumaniar dantzak*, Astor Piazzollaren *Historia del tango* edo Celso Machadoren *Musicas populares brasileiras*. •



Irudian iazko kontzertua, Rosat Ruti trio taldea Brigitarren komentuan.

HARATEGIETAKO SALEROSKETATAN EUSKARA BULTZATZEKO KANPAINA ABIATU DA BURUNTZALDEAN

# Dieta orekatuan, haragia beharrezko osagai

Giza elikaduran aditua da Amaia Campos eta argi dauka haragi proteinak geure osasunarentzat onuragarriak direla, "balio biologiko handiko proteinak kontsideratzen dira, aminoazido esentzial guztiak dituztelako".

Orain ez bada, urte hasieran, oporren bueltan… Dieta zaintzea lehentasuneko zeregin bihurtzen da. Halakoetan otorduetatik lehenbizi erretiratzen diren elikagaien artean, harategietako produktuak egon ohi dira. Dieta orekatu bat izateko aldiz, halakorik egitea beharrezkoa al da? Dirudienez ez. Haragi proteinak geure osasunarentzat onuragarriak baitira. Guztia bezala, tamainan beti ere. Lasarte-Oriako Natur Houseko langile eta giza elikaduran eta dietetikan diplomatua den Amaia Camposek xehetasun gehiago ditu.

**Dieta orekatutzat zer ulertu behar dugu?**
**Amaia Campos:** Pertsona bakoitzaren osasun egoera hoberena bermatuko duen elikagai guztiak dituen dieta da. Beraz, eguneroko nutrizio eta energia beharrak osatzeko gaitasuna izango du. Dieta orekatu batean, elikagaien kantitate eta kalitateak, berebiziko garrantzia izango dute. Guretzat dieta orekatu baten gertuko eredua, "mediterranear dieta" izango litzateke.

**Denetik jan beharra dagoela esaten da. Zergatik daude hainbeste desadostasun gai honen inguruan?**
**A.C.:** Hala da, denetatik jan beharra dago: azken finean ez daude elikagai txarrak ez onak, proportzio kontua besterik ez da. Denetik jan bai, baina bere proportzio justuan. Baina egia esan, dietetika desadostasun eta kontraesan gehien eragiten duen alorra da. Izan ere, talde etniko bakoitzak elikaduraren aurrean dituen jarrera eta elikagaiak, bere ile edo azalaren kolorea bezain ezberdinak izan daitezke. Azken finean, nire ustez, oinarri zientifiko bat duen artean norberak bere konbikzioak defendatzea guztiz legezkoa da. Edozein gaien inguruan sortzen diren iritzi ezberdinek etengabe ikerlan berriak bultzatuko dituzte. Beraz, positibotzat hartuko nuke desadostasun egoera hori.

Dena den, etengabeko ikerketen ondorioz, ideia konkretu batean behintzat pentsaera guztiak adostea lortu da: dieta orekatuaren definizioan.

**Haragi proteinak ere beraz, beharrezkoak dira ezta?**
**A.C.:** Noski baietz. Haragi proteinak, balio biologiko handiko proteinak kontsideratzen dira, aminoazido esentzial guztiak dituztelako. Aminoazido hauen premiak osatzeko, haragi proteinak jatea beharrezkoa da, organismoak bere kabuz ez baitakizki sintetizatzen kantitate nahikoan eta landarekien proteinekin lan gogorra edukiko dugulako gutxienekoetara iristeko. Oro har, haragia kontsumituz berriz, erraz iritsi gaitezke behar minimoak betetzera.

**Guretzat onak diren proteina horiek bereziki zer haragietan aurki ditzakegu?**
**A.C.:** Batez ere gantz gutxiko haragietan, oilaskoa eta untxian alegia. Duen gantzaren arabera, baita txahal haragian ere.

**Eguberriak gertu ditugu. Otorduetako menuetan zer modutan txertatu beharko genituzke haragi proteinak?**
**A.C.:** Eguneroko beharrak ongi asetzeko funtsezkoa izanik, egun horietan ere normaltasun osoz txertatu beharko genituzke haragi proteinak, hori bai, balio biologiko handiko beste proteinekin ere tartekatuz, dieta ahalik eta orekatuena izan dadin.

Datozen egun berezi horietan, oro har egiten ditugun gehiegikeriekin eduki beharko genuke kontu gehien, egun jarraituetan gainelikatzearen ondorioz, gorputzak behar ez duen gantz guztia gorde egiten baitu. Hainbeste tentaziori eustea zaila da, baina haragi proteinak otordu nagusietan kantitate egokian sartuz gero, geure asetasun sentsazioa iraunkorragoa izango da, digestioan organismoak lan gehiago egin behar baitu. Hala, kaloria askoko beste zenbait elikagaien gehiegizko kontsumoa ekidin edo murriztu dezakegu.

**Haragia sukaldean nola prestatzen dugun, horrek ere eragina izango du?**
**A.C.:** Hobe da frijituak saihestea, baita elikagaien koipe kantitatea handitzen duten teknikak ere.

**Zer onura dituzte haragi proteinek?**
**A. C.:** Proteinak funtzio eraikitzailea du gure organismoan, organo eta gorputzeko egitura guztien euskarria baita. Baina gehiengoak ezagutzen ez dituen funtzio asko ere baditu. Bere proteinek, aminoazido esentzialak kantitate egokian dituzte, organismoak bere kabuz sintetiza ezin ditzakeenak. Gainera, mineralen xurgatze prozesua errazten diote geure organismoari. Beste osagai garrantzitsuak ere baditu: ura (%70 inguru), B taldeko bitaminak, mineral eta burdina.

Ospe handiko ikerlari askoren esanetan, haragi gorri zein zuriak, bihotzarentzat ona den dieta baten partaide izan beharko lirateke. Azken aldian leporatzen zaizkion arriskuak, dieta desorekatu baten ondorio besterik ez dira.•

> "Ikerlari askoren ustez, haragi gorri zein zuriak, bihotzarentzat ona den dieta baten partaide izan beharko lirateke"


Amaia Camposen ustez, "hobe da frijituak saihestea, baita elikagaien koipe kantitatea handitzen duten teknikak ere".

## Buruntzaldeko harategietan, lehiaketa abian

Harategietako salerosketatan euskara bultzatu asmoz, Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek kanpaina berri bat abian jarri dute. Saltoki hauetan eskaini ohi dituzten produktuen euskal izenekin kartelak eta txartelak prestatu eta egitasmoarekin bat egin duten bailarako 60 bat saltokietan eseki dituzte. Gainera, abenduaren 17ra arte lehiaketa batean parte har daiteke. Erosketak egitearen truke jolas bat osatzeko txartela jasoko da. Ekimenarekin bat egin duen harategi bakoitzean, 50 euroko bi erosketa bono zozketatuko dira parte hartzaileen artean.



## Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 29**

**10:00etan,** Ostadar-Amara Berri (Emakumezkoen Liga) Michelinen.
**11:30ean,** Ostadar-Lengokoak (Infantil txikiak, kopa) Michelinen.
**12:50ean,** Ostadar-Zumaiako (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.
**14:20ean,** Ostadar-Arrasate (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.
**15:50ean,** Ostadar-Hernani (I. Jubenila) Michelinen.
**17:40ean,** Lasarte-Oria Taldea-Intxurre (II. Erregionala) Michelinen.

**12:30ean,** Ilintxa-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11, txapeldunen fasea) Bikuña, Legazpian.
**15:30ean,** Intxurre-Lasarte-Oria Taldea (I. Jubenila) Elorri, Alegin.
**15:30ean,** Ordizia-Ostadar (II. Erregionala) Altamira, Ordizian.

**ARETO-FUTBOLA**

**Larunbata 29**

**17:45ean,** ISU leihoak-Debabarrena (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

**18:00etan,** Euskal Sofa Inter-UPV-Aldaz H.K. (Euskal Liga) Mons kiroldegia, Donostian

HERRIKO TXAPELKETA
**10:00etan**,Siglo XX-Danena
**10:50ean**, ISU Leihoak-Morrison
**11:40ean**,Katanga -Ainhoa
**12:30ean**, Epel-Ilargi
**13:20ean**, Okela-Oria Txiki
**14:10ean**,Tragoxka-Obelix
**15:00etan**, Mayi-IOB H.K.
**15:50ean**, Oria Krist.-Jordi

**Igandea 30**

HERRIKO TXAPELKETA
**10:00etan**, Izarra-Biyona
**10:50ean**,Viña del Mar-Lurra XXI
**11:40ean**, Buenetxea-Izkiña

**FUTBOL 8**

**Larunbata 29**

**17:15ean,** Amara Berri-Lasarte BHI (Infantilak) Berio, Donostian.

**FUTBOL 7**

**Larunbata 29**

**16:00etan,** Top Clima-Iguazari-Niasa-Corpa (III. Maila) Zubietan.

**SASKIBALOIA**

**Larunbata 29**

**16:30ean,** Novamark-Ainhoa (Gizonezko seniorrak) Ipurua kiroldegia, Eibar.

**PILOTA**

**Larunbata 29**

**16:00etan,** Intza 1-Euskal Jolas 1 (Eskuz banaka infantilak 1. urtea) Michelinen
**18:30etan,** Intza-Goierri (Eskuz binaka I. Jubenila) Michelinen.

**16:30ean,** Oiarpe 6-Intza 1 (Eskuz banaka infantilak 2. urtea) Madalensoro, Oiartzunen.

**JUDOA**

**Larunbata 29**

**Egun osoa,** LOKEko judoka infantilek Gaztela eta Leongo infantil mailako Judoko II. Lehiaketa internazionalean parte hartuko dute Valladoliden.

**ESKOLA KIROLA**

**Larunbata 29**

**10:00etan,** Buruntzaldeako Topaketa LH4ko haurrek saskibaloia eta igeriketa egingo dute Kiroldegian.
**12:30ean,** Lasarte-Oriako Topaketa LH3ko haurrek saskibaloiean arituko dira Kiroldegian.



## Kiroletako oharrak

**Igerilekua itxita**

Bihar, azaroaren 29an, goizeko 10:00etatik 12:00etara udal igerilekua itxita egongo da, Eskola Kiroleko txapelketa egingo baitute bertan. Udal kiroldegitik jakinarazi dute, hurrengo larunbatean, azaroaren 29an, kirol instalazioetako abonatuek Andoain (943 300 147) eta Usurbilgo (943 372 498) igerilekuak erabiltzeko aukera izango dutela.



# Aldatz Hortz Klinikak Euskal Ligako lidergoa eskuratu du



Aldatz Hortz Klinika taldea Euskal Ligan lehenak estreneko denboraldian.

TXINTXARRI

**Aldatz Hortz Klinika futbol taldea areto-futboleko Euskal Ligako liderra da. Aurreko asteburuan, Leioako Artaramo taldearen aurka lehiatu zen udal kiroldegian (5-0). Garaipen honekin Oskar Garciak zuzentzen duen taldea sailkapenaren buruan jarri da .**

Lehen urtea da Aldatz Hortz Klinika taldeak areto-futboleko Euskal Ligan jokatzen duena eta aurreko asteburuan, bederatzigarren jardunaldian, Lagun Onak taldeari lider postua kendu zion.

Bilboko Lagun Onak taldea Meatzariren aurka jokatu duen partidan berdinketa besterik ez zuen lortu. Beraz, bilbotarren berdinketa eta lasarteoriarren garaipenari esker, oraindik 20 bat jardunaldi jokatzeko geratzen direnean, Oskar Garciaren taldea Euskal ligako liderra da.

Aldatz Hortz Klinikako jokalariek ez zuten arazorik izan Artaramo talde bizkaitarrari irabazteko.

Partida ez zen erraza izan, baina eroso lortu zuen garaipena, baita sailkapeneko lehen postua eskuratzeko behar zituzten puntuak lortu ere.

Igandean, Aldaz H.K. izenean jokatu zuen taldea ondorengoa da: Josu López, Urtxi Azpiroz (2), Iñigo Jaca, Roberto Pérez eta Joseba García hasierako taldea izan zen; Iñaki Francisco (1), Unai Matallana, Igor Baquerizo eta Ares González (2).

### Ventanas ISU Leihoak

Areto futboleko Gipuzkoako Ligako 1go mailan mugimenduak izan dira aste honetan. Izan ere, Ventanas ISU Leihoak taldeak Bar Ignacio Hondarria taldeari 3-4 irabazterakoan, hondarribitarrek bigarren postua galdu dute eta Eneko Molinak gidatzen duen taldea postu bat aurreratu du. Honi esker, sailkapen taulan laugarren daude.

Partidu borrokatua izan zuten lasarteoriarrek eta azkeneko minutuak arte ezin izan zuten garaipena lortu.

Ventanas ISU Leihoak hasierako taldea: Gorka Arocena (Francisco Iglesias), Pablo Izquierdo (2), Roberto García, Javier Gómez (1) eta Mikel Goñi; Óscar Calvo, José Manuel Sánchez, Ander Calvo (1) eta Miguel Jiménez.•

## Emaitza onak lortu zituzten LOKEko judokek Amurrion

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko judoka infantilak eta kadeteak aurreko asteburuan Amurrion lehiatu ziren, txapelketa internazional batean. Gorka Aristegi entrenatzailearen hitzetan, "lortutako emaitzak oso onak izan ziren eta gure judokek oso maila ona erakutsi zuten."

LOKEko judo sailetik eskaini diguten informazioaren arabera, ondorengo sailkapenak lortu dituzte: neskek, Kiara Tobajas eta Amaia Curiel 2.postua lortu zuten; Josu Olmos eta Esteban Martinez lehenengo postuak eskuratu zituzten; Abayuba Gutierrez 2.na izan zen; Iñigo Matxain eta Mario Garrido hirugarren eta Yerai Garcia eta Imanol Gonzalez bosgarren postuan.



LOKEko judokak Amurrioko txapelketan irabazitako sariekin.Arg: Gorka Aristegi

Entrenatzailea oso pozik agertu da LOKEko judokek Amurrion lortutako emaitzekin, "benetan oso emaitza onak izan ziren."

Gorka Aristegik aurreratu digunez, asteburu honetan Valladolidera bidaiatuko dira talde berdinarekin, bertan parte hartzeko.•

## Egunero

**Erakusketa**
Monica Cañon Ursola margolariaren margo minimalistak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



**Erakusketa**
Asier Bastida argazkilariaren Amets bat eraikitzen erakusketa. Euskal Fondoen laguntzarekin. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

## Ostirala, 28

**Kontzertua**
Underneed taldearen emanaldia Xpressionk! elkartea eta Lasarte-Oriako udaleko Gazteria Saialk sinatutako hitzarmenean barruan. Manuel Lekuona kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.





### *Pasai Donibanetik Lasarte-Oriara kontzertu potentea eskaintzera*

Kontzertu *kañeroa* eskainiko du *Naizroxa* taldeak gaur Jalgi kafe-antokian. Pasai Donibanetik datorren talde hau eta hortik dator bere izena: *Naizroxa*. Grind Core, metal, hard core eta rock bezalako doinuak izango dira entzungai. Kontzertu laburra baina oso potentea eskainiko dute, buruak astintzeko aukera ezinhobea.

Gaur 22:30ean
Jalgi kafe-antzokian

## Larunbata, 29

**Jaialdia**
Jalgune elkarteak Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuen laguntzarekin Jaialdi ederra antolatu du. Manuel Lekuona Kulturetxean, arratsaldeko 18:30ean.



## Igandea, 30

**Zinea**
Papa por sorpresa filma ikusgai haurrentzako zinearen atalaren barruan. Sarrera 3 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 17:00etan.



## Asteazkena, 3

**Ipuin-kontalaria**
Koruko Zurutuza ipuin-kontalariaren saioa etxeko txikientzat. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan.



**Diaporama**
Hibai Diezek eta lagunek Txina, Tibet, Kyrgyztan eta Uzbekistanera eginiko bidaiada kontatuko dute Bidaietako Diaporamen zikloaren barruan. Jalgi kafe-antzokian, 21:00etan, euskaraz.




## Ostirala, 5

**Antzerkia**
Nik egin beharko antzezlana *Zirika Zirkus* taldearen eskutik. Ekitaldi hau Kultur Errota egitasmoaren barne dago (Topagunea). Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean, euskaraz.



## Asteazkena, 10

**Ipuin-kontalaria**
Beatriz Egizabalek ipuin zoragarriak kontatuko ditu 6 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendua, Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. Euskaraz

## Asteazkena, 17

**Ipuin-kontalaria**
Koruko Zurutuza ipuin-kontalariaren saioa etxeko txikientzat. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. Euskaraz

## Liburutegiko ordutegia

Manuel Lekuona kulturetxea

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Esazu irratiko programazioa




**Ostiralero programa!**
FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.
Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

**Pandero bat agertu da**
Pandero bat agertu da, bere fundarekin Jalgi tabernan. jabea mesedez, pasa dadila lehen bailehen jasotzera.

**Barrikotea Lasartearra elkartean**
Lasartearra Elkarteko zuzendaritzak bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die urtero antolatzen den barrikotea azaroaren 29an, larunbatean izango dela iluntzeko 20:30ean. Bertan parte hartu nahi duten guztiek elkartetik pasa behar dute izena ematera. Horretarako azken eguna azaroaren 26 izango da.

**Katxalin Elkarteko loteria**
Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteak, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotakoa da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkarterako izango da. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBn egin dezakete, Ganbo kalean.

**Eguberrietako loteria**
Lasartearra elkarteak, bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die, gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela. Erostekoa asmoa duenak elkartean egin dezake astelehenetik ostiralera 18:00aurerra abenduaren 7a arte, hau barne.

**Bideo kamara bat galdu da**
Larunbata honetan, Jaizkibel plazan bideo kamara bat galdu da Burgi tabernaren aurrean. Aurkitu duenak mesedez telefono honetara deitu dezala. 943362410

**Larrialdia Beninen**
Beninera bidaltzeko janari bilketa egingo da. Bilduko den janari mota honekoa da: arroza, lekariak, pasta. Janaria bidaltzeko interesa duenak honako lekuetan egin dezake: Jubilatuen egoitzan, DIA dendetan,supermerkatua (Sasoetan), Eroski centeren, Arsuagan (Oztaran), Dendaberrin (Zirkuitu ibilbidea). Mª Auxiliadoraren izenean mila esker.

**Oharrak jartzeko:**
Tel.: 943 366858
Geltoki kalea 4, behea
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

# Nik bai, eta zuk?

## Jalgune Aisialdi elkarteak bihar jaialdia ospatuko du Manuel Lekuona kultur etxean

TXINTXARRI

Abenduaren 3an, Urritasuna duten pertsonen nazioarteko eguna da eta hori ospatzeko Jalgune Aisialdi elkarteak jaialdia ospatuko du bihar, azaroaren 29an 18:30ean, Manuel Lekuona kultur etxean.

Bigarren jaialdi honetan elkarteak dituen 18 urteetako laburpena egiten saiatuko dira. Honetarako, ekitaldi desberdinak burutuko dituzte elkarteko gazte eta begiraleak, hala nola, dantza, kantua, batukada edo antzerkiak.

Izan ere, Jalguneko gazteek nahiz eta urritasuna izan, gaitasun pila dituztela erakutsi zuten iazko jaialdian, dantzari finak edo taichi adituak direla, esate baterako. Aurten ere, bere gaitasunak erakutsi nahi dituzte eta jaialdiaren leloarekin *Nik bai, eta zuk?* erronka botatzen diete lasarteoriarrei.

Baina ez dira taula gainean bakarrik egongo, 18 urte hauetan begirale lanetan egondako pertsonak, Ttakuneko batukada, Semblante Andaluzeko abesbatza rozieroa, Ostadarreko neskak, rap eta break taldea eta Euskararen VII. Maratoiko zortzikoteko hiru kide, Rebeka, Jokin eta Lorenaren laguntza izango dute emanaldia ikusgarriagoa izan dadin.

Horregatik, une dibertigarriak eta alaiak pasa eta giro ezin hobean egoteko, Jalguneko gazteek jaialdirako gonbita egin nahi diote Lasarte-Oriari.



Ospakizunekin jarraikiz, igandean elkarteko gazte, senide eta begiraleek bazkaria izango dute Goiegi jatetxean. Gonbidatu gisa, urtean zehar lagundu dizkieten elkarteetako ordezkariak egongo dira, hala nola, Ttakun kultur elkarteko, Hermandad Virgen del Rocio, Also tabernako edo Lasarte-Oriako Udaleko ordezkariak.

Honela, Gizarte Zerbitzuen sailak ere jaialdiaren garrantzia azpimarratu nahi du eta, orokorrean, Jalgune Aisialdi elkarteak duen garrantzia.

Izan ere, pertsonen arteko harremana sustatzen eta, era berean, urritasuna duten pertsonen gertutasunaren eta integrazioaren alde lan egiteko guneak sortzen baititu.

### Lokal berria

Bestalde, Lasarte-Oriako Udalak jakin arazi duenez, Jalgune elkartearentzat lokal berria epe laburrean prestatuko du, Loidi-Barreneko anbulatorioko goiko soilaruetan kokatuko dena, hain zuzen ere.

Jalgune Aisialdi elkarteak ilusio handia du lokal berriarekin, honek espazio handia izango baitu eta elkartearen beharrei hobeto egokitua gainera.•





Bideo Lagunak

Denda lekuz aldatu dugu!




Betiko zerbitzu eta eskaintza paregabeak, *leku berrian!*

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134 • e-maila: jose@bideolagunak.com